

EKINTZAILLETZA-KONPETENTZIA (EK)

Ekintzailletzarako konpetentziak aukera eta ideiekin jarduteko bizi-ikuspegia garatzea eskatzen du, beste pertsona batzuentzako baliozko emaitzak sortzeko beharrezkoak diren ezagutza espezifikoak erabiliz. Hainbat estrategia eskaintzen ditu: beharrak eta aukerak hautemateko begirada egokitzea; sormen eta berrikuntza prozesuen barruan, pentsamendu estrategikoa, sormena, irudimena eta hausnarketa etiko, kritiko eta konstruktiboa erabiliz ideiak sortu eta birplanteatzea; ingurunea aztertu eta ebaluatzeko pentsamendua entrenatzea; eta ikasteko, arriskatzeko eta ziurgabetasunari aurre egiteko jarrera piztea. Era berean, informazioan eta ezagutzan oinarritutako erabakiak hartzea eta beste pertsona batzuekin modu arinean lankidetzan aritzea eskatzen du, motibazioz, enpatiaz eta komunikazio- eta negoziazio-trebetasunez, planteatutako ideiak ekintzara eramateko balio sozial, kultural eta ekonomiko-finantzarioko proiektu iraunkorrak planifikatuz eta kudeatuz.

LEHEN HEZKUNTZA OSATZEAN, IKASLEAK... ..

ONARRIZKO HEZKUNTZA OSATZEAN, IKASLEAK...

<p>EK1. Aurre egin beharreko beharrak eta erronkak ezagutzen ditu, eta ideia originalak lantzen ditu, sormen-trebetasunak erabiliz eta ideiek ingurunean sor ditzaketen ondorioez jabetuz, hautemandako beharrei erantzungo dieten konponbide baliotsuak proposatzeko.</p>	<p>EK1. Beharrak eta aukerak aztertzen ditu, eta erronkei zentzu kritikoarekin aurre egiten die, iraunkortasunaren balantzea eginez, ingurunean izan dezaketen eragina baloratuz, ideia eta irtenbide berritzaileak, etikoak eta iraunkorrak aurkezteko, eremu pertsonalean, sozialean, kulturean eta ekonomikoan balioa sortzera bideratuta.</p>
<p>EK2. Norberaren indarguneak eta ahuleziak identifikatzen ditu, nor bere burua ezagutzeko estrategiak erabiliz; oinarrizko elementu ekonomiko eta finantzarioak ezagutzen hasten da, eta horiek eguneroko bizitzako egoera eta arazoei aplikatzen dizkie, jatorrizko ideia baliotsuak ekintzara eraman ditzaketen baliabideak hautemateko.</p>	<p>EK2. Norberaren indarguneak eta ahuleziak ebaluatzen ditu, autoezagutzako eta autoeraginkortasuneko estrategiak erabiliz, eta ekonomiaren eta finantzen funtsezko elementuak ulertzen ditu, ekonomia- eta finantza-ezagutzak aplikatzen dizkie jarduera eta egoera zehatzei, eta lankidetzaren eta talde-lanaren erraztuko duten trebetasunak erabiltzen ditu, ekintzara esperientzia ekintzaile baliotsua eramango duten beharrezko baliabideak biltzeko eta optimizatuz.</p>
<p>EK3. Ideia eta konponbide originalak sortzen ditu, zereginak planifikatzen ditu, beste batzuekin eta taldean lan egiten du, egindako prozesua eta lortutako emaitza baloratuta, ekimen ekintzaile bat aurrera eramateko, esperientzia ikasteko aukeratzat hartuta.</p>	<p>EK3. Ideia eta konponbide baliotsuak sortzeko prozesua garatzen du, eta erabakiak hartzen ditu, modu arrazoituan, planifikatzeko eta kudeatzeko estrategia arinak erabiliz. Egindako prozesuari eta lortutako emaitzari buruzko gogoeta egiten du, prototipo berritzaileak eta baliozkoak sortzeko prozesua burutzeko, esperientzia ikasteko aukeratzat hartuta.</p>